

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

ZEHARKAKO POLITIKETARAKO ARLOA

Hizkuntza Normalizazioa Azpiarloa

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onetsi da Laudion erroldatutako biztanleek 2025eko udan, 2025eko ekainean, uztailean, abuztuan edota irailean egindako euskara ikastaro trinkoak diruz laguntzeko deialdia

BDNS (Identif.): 817257.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/817257>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, deialdian azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

Bigarrena. Helburua

Laudioko Udalak Hizkuntza Normalizazioa Azpiarloaren bitartez euskara ikasteko norgheia-gokako araubidean ematen dituen dirulaguntzen adjudikazioa arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira.

Hirugarrena. Ordenantza arautzailea

Deialdi hori Laudiko udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzak arautuko du. 2021eko martxoaren 10ean argitaratu zen ALHAOn (28. zenbakia).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-kopurua 6.500,00 euro da.

Edozein modutan ere, urte natural berean eskatzaile batek jasotako euskara beken batuketak ezingo du 1.250,00 euroko muga gainditu.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAO-n argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2025eko urriaren 15ean amaitu.

Laudion, 2025eko otsailaren 21ean

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ